

Arrasate

P R E S S

1995eko
Azaroak 3
295. zenb.

KIROLAK
Julian Retegi

KULTURA
Gozategi z Blai
Arrasaten

IRITZIA
Xabier
Zubizarreta

ONCEko kupoi saltzaileak

Ilusioa ehun
pezetaren
truke



**AZAROAK 11,
LARUNBATA**
ARRATSALDEKO 5^{ETAN} ETA 7^{ETAN}
AMAIA ANTZOKIAN...

TXIRRI, MIRRI ^{ETA} TXIRIBITON



SARRERA: 600 PTA.
(SUPERBAT TXARTELDUNAK 400 PTA.)

SARRERAK ALDEZ AURRETIK SALGAI

AMAIA ANTZOKIKO TAKILAN
AZAROAK **6, 7, 8, 9** ETA **10**EAN
ARRATSALDEKO **6**ETATIK **8**ETARA.



Arrasaten keniarrak

Ez dut xehetasunik gogoratzen baina pasarte benetakoa da. Europako lasterketa luzeen zirkuitoan agertu zen behin-nola ez dakit-keniar korrikalari bat, eta parte hartzen zuen lasterketa guztiak irabazten hasi. Berehala iritsi zen goi mailako konpetiziora eta halako batean munduko txapelketa ere irabazi zuen. "Zorionak" esan zion kazetari batek, "munduko onena zara". "Onena?" erantzun keniarrak. "Herrian badituzte bi lagun beti irabazten didatenak!".

Euskal Telebistan lehen urratsak ematen hasi naizenean berdetu zait aspaldiko kontu hau. Joxe, Aintzane eta hirurok izan gara azkenak ATBtik ETBra saltoa jotzen, baina gure aurretik lagun mordoska batek egin du salto, duela aste batzuetako ARRASATE PRESSEk jaso zuen bezala. Zenbait mediotan harrobi, uholde eta antzeko hitzak hasi dira erabiltzen Arrasatekotik beste telebistetara igaro garenoi buruz. Gutxi gorabehera, guk keniarrak korrikalarietara buruz erabili izan ditugunak, bestalde.

Keniarrak baten omen dituzte korrikalari onak sortzen laguntzen duten faktoreak: adibidez, lurralde altua da, eta horrek korrika-lan



luzeetarako erresistentzia berezia ematen ei du. Bestalde, garraio bide erabiliena zangoak izatea ere eragingarria izango da, dudu barik. Eta Arrasate? Zer dela eta Arrasaten keniarrak?

Ba, telebistari dagokionean, Arrasatek ATB du. Eta hau begibistakoa bada ere, hemen errepikatzea ez dago soberan. Pentsa, bestela: nondik atera dezake ETB1ek aurkezle berri eta aldi berean trebaturik? Eta ETB1 diot ze gaztelaniaz aukera gehiago dago eta kamara atzeko lanetan konpetentzia handiagoa. Baina telebistan trebatuak izango diren euskal esatariak sortzeko ATB aparteko eskola da. Sar dezatela datu hau disko gogorrean -eta buru gogorrean- telebistarako zaletasuna edota komunikabideetarako ikasketak egiten ari direnek. Bai baitakit nolako arazoak izan ohi dituen ATBk aurkezle eta laguntzaile berriak aurkitzerakoan.

Animo! beraz, gure hurrengo izango zaretenoi. Aprobetxa ezazue aukera! Zuen

aurrekook -eta honetan uste dut nire "uholdeki-deak" bat etorriko direla-keniarrak harena egingo dugu. "Gu onak? Ba, herrian gelditu direnak hobeak dira!".

MIKEL IRIZAR

Memesa

79 42 22

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du




Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketzailea:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Berto eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



Aldizkari honek
Euzko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria

IR TABERNA TI

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Noiz arte horrela?

Beharbada beste salaketa bat gehiago izango da eta aurrekoetan bezala ez zaio jaramonik egingo.

Urriaren 20ko barikuan Arrasateko Gaztetxean konzertua egon zen eta berriz ere goizaldeko ordubata luze joan zen amaitu arte.

Agian kexu hau idazten nabilen bitartean Gaztetxeke jendea ere gutun bat idazten arituko da inguruko bizilagunei barkamena eskatuz besteetan egin duten bezala.

Astebukaera berdineko zapatuan musika bolumenik handienean goizeko 4ak arte izan genuen. Ondorengo lerroek beraz galdera batzuk sortarazten dizkirate:

Zergatik Arrasateko tabernei ordutegi bat betetzea eskatzen zaienean Gaztetxeari ez?

Zergatik tabernei insonorizazio baldintzak bete behar dituzte eta Gaztetxeak ez?

Gaztetxeak betetzen du inolako baldintzarik?

Ez du Arrasateko Udalak ezer egin behar?

Edo Udalaren aldetik beldurra al dago?

Eta bukatzeko jokabide denak zilegi al dira Arrasaten?

Errespetu pixka bat eskatzea larregi al da?

A.A.

PESA: Sardina lata (marka berria)

Gu Bergarako Aranzadi Ikastolakoak gara eta 7. mailan gaude. Aste honetan Eskoriatzako Museo-Eskola ikustera joan gara (urriaren 24tik - urriaren 27ra). Aste gutzian oso bidaia txarra egin dugu: jende gehiegi urbano barruan, alde batetik bestera, zutik umeak ginelako...

Gaur, ostirala, (urriak 27) gure gelari tokatu zaio infernua! Bidaia oso gaizki antolatuta egon da. Bazekiten hogeitapiku pertsona gehiago joan behar zirela, baina PESAKoak (enpresa) ez dira bidaiariez arduratu (beste autobus bat prestatu?) Istorioa hau da: Eskoriatzatik Bergarara itzultzerakoan, gutaz aparte, beste jende multzo handia sartu da: ikasleak, motxila eta maleta guztiak lurrean laga dituzte (beste tokirik ez zutelako), langileak, etab. Guztira 70? edo gehiago?

Pilatuta joan gara, bata bestearen gainean, gure neurritara dauden heltzeko tokietara hurbiltzerik ez genuen jendea zela eta, goian daudenetara iristeko oraindik baba pila bat jan beharra daukagu. Haurrok baditugu bete-behar batzuk baina baita ESKUBIDE batzuk ere, berdin pagatu baitugu nahiz eta talde handi bat izan.

Espero dugu hurrengoan zerbitzu hau hobeto antolatzeta eta karta hau zerbaite-rako baliogarria izatea.

Eskerrik asko zuen arre-

tagatik eta bidaiari zaretenok gurekin bat etorriko zarete-lakoan...

Aranzadi Ikastolako 7. mailako ikasle eta irakasleok

Arbitroekin jarraituz...

Guztiok dakigu, eta antolatzaileok inortxok baino hobeto, Zaldibarko Futbol Txapelketako ardi beltza lehen fasean burutzen diren arbitraia eskaxak direla; ez da inolako aditua izan behar horretaz ohartzeko. Horrela, arbitro finkoen eta hauei ordaindu beharko litzatekeen auzia behin-betiko argitu asmoz, idatzi hau kaleratu dugu.

1. Zaldibarren gertatzen diren arbitrai txarren erantzule bakarrak taldeak dira. Taldeek arbitratzeko orduan interes gehiago jarriko balute eta jokalariek laguntza gehiago emango balute, arbitraien kalitatea izugarri hobetuko litzateke. Baina arbitro gisa "iñozoena" jarriz ez da ezer konpontzen.

2. Arbitroei ordaintzeari buruzkoa: AHAZTU. Bigarren fasean aurrera dauden arbitroek ezertxo kobratu gabe demasakoak entzun behar izaten dituzte bai zelaian, eta oraindik okerragoa dena, bai eta zelaitik kanpo; pentsa kobratu ezke-ro gertatuko litzatekeena!

Beraz, aipatu bezala, konpontbidea bat bakarra da guztion esku dagoena.

ANTOLATZAILEAK

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA


SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Bitxori
ileapaindegia

Errebuealta, 10 behea ARRASATE Tfnoa: 79 27 61

Lana banatzearen alde zaude?



Haritz Arabiourrutia
Ikaslea
(18 urte)

Bai ados nago. Horrela denok egingo genuke lan eta guztiok izango genuke soldata.



Amable Sexto
Langilea
(56 urte)

Nik lan egiten dut eta gertu nengoke ordu gutxiago sartu, zerbait gutxiago kobratu eta lana banatzeko.



Oscar Gomez
Langabetua
(19 urte)

Ondo legoke. Horrela langabetuok aukera bat izango genuke.



Mari Jose Ibarguen
Langilea
(40 urte)

Idea moduan ona iruditzen zait. Banaketa nola egingo litzatekeen ondo irudituko balitzait, neurri hori onartuko nuke.




Sara Zabala
Langilea
(33 urte)

Bai ondo. Nik lan egiten dut eta ordu gutxiago sartzeke gertu egongo nintzateke.



Trini Unamuno
Langilea
(47 urte)

Oso ondo. Batzuk ordu asko sartzen dute eta onena, ordu horiek langabetuei ematea izango litzateke.



Jabier Vicente
Langilea
(41 urte)

Ondo dago baina lan arazoari beste irtenbide batzuk aurkitu behar zaizkio. Adibidez, iruzur fiskalik egingo ez balitz lanpostu gehiago sortuko lirateke.



Agueda Rodriguez
Langilea
(54 urte)

Bai, horrela aukera bat izango lukete lanik aurkitu ezinean dabiltzanak. Jendeak gaur egun nahikoa gauza du eta hobe banatuko balitu.




ARGI PLASTIC

PVC eta aluminioan egindako leihoak,
ateak, manpa...

Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!



Tailerra eta bulegoa: Zigarrola, 1 - 8. pabilioia • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualarioria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 45
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 63
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 3

Egunez eta gauez: Mozos, Bergara.
 10ak arte: Irizar, Erquin.

Larunbata 4

Egunez eta gauez: Camacho, Bergara.
 10ak arte: Amezua, Santamaina.

Igandea 5

Egunez eta gauez: Camacho, Bergara.
 10ak arte: Ruiz, Maala.

Astelehena 6

Egunez eta gauez: Puy, Bergara.
 10ak arte: Morales, San Andres.

Astearte 7

Egunez eta gauez: Cuellar, Bergara.
 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.

Asteazkena 8

Egunez eta gauez: Estella, Bergara.
 10ak arte: España, Iturmotz.

Osteguna 9

Egunez eta gauez: Mozos, Bergara.
 10ak arte: Corcua, Musakola.

3 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Apolo 13" 7etan eta 10etan.

• **BERTSO AFARIA GATZAGAN**
 Pagedar elkarteak antolatuta bertso afaria Gure Ametsan. Bertsolariak: Sebastian Liza-so eta Andoni Egaña. Prezioa: 2.500 pta.

• **GOZATEGI'Z BLAI IKUSKIZUNA**
 Gozategi taldeak eta Euskal Herriko dantzari txapeldunek Gozategi'z blai ikuskizuna eskainiko dute Amaia antzokian gaueko 10.30etan

PERURI BURUZKO ERAKUSKETA ETA SALMENTA ESKORIATZAN

Azaroaren 2tik 12ra Eskoriatzako Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Ordutegia: arratsaldeko 6etatik 8etara. Jai egunetan eguerdiko 1etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

4 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Apolo 13" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **JARRAIREN MANIFESTAZIOA GASTEIZEN**
 Manifestazioa arratsaldeko 5.30etan Gasteizen. Arrasatek auto karabana irten-go da arratsaldeko 4etan Arbolapetatik.

• **LUDOTEKA IBILTARIA ERGUINEN**
 Txatxilipurdi eta AEDko Ludoteka ibiltaria Erguingo eskolan. Ordutegia goizeko 11etatik ordu batera. O.H.Oko 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., eta 8. mailakoei zuzenduta.

• **KONTZERTUA AMAIAN**
 Euskadiko Orkestra Sinfoniko-ko Hirukotea kontzertua eskeiniko du Amaia antzokian. Sarrera: Bazkideak debalde, besteak 500 pta. Arratsaldeko 7.30etan.

• **V. UDAZKENEKO JAIALDIA**
 Eskoriatzako kiroldagian. Arratsaldeko 6etatik 8.20etara. Al-Andalus elkarteak antolatuta

5 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Apolo 13" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN**
 Mañaria, Mugarra, Leungane, Urkiola eta Olaetara mendi irteera goizeko 7etan Gari-baitik. Besaidek antolatuta.

• **BIOLONTXELO ETA PIANO EMANALDIA**
 Miren Zubeldia biolontxeloan eta Ana Teresa Rodriguez pianoan Amaia Antzokian arratsaldeko 7.30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

• **TRIAL TXAPELKETA**
 Goizeko 10etan Trial txapelketa Udalan.

• **"SUEÑOS DE ANDALUCIA" DANTZA TALDEAREN EMANALDIA**
 Eguerdiko ordu batean Al-Andalus kultur elkartearen.



TRIAL TXAPELKETA UDALAN

Domekan goizeko 10etan Trial txapelketa Udalan. Gipuzkoako txapelketarako baliogarria izango da. Arrasateko Motozaleen Elkarteak antolatuta.

ESKARATEAK ANTOLATZEKO IKASTAROA

Azaroaren 6tik 17ra astelehenetik ostiralera. 10 egun eta 20 orduko iraupena. Ordutegia; arratsaldeko 2etatik 4ak arte Zaldibar ikastetxean. Irakaslea: Javier Amuriza. Prezioa: Ibai - Arteko bazkideak 5.000 pta eta bazkide ez direnentzat 7.000 pta. Talde mugatuak. Interesatuok deiegin 79 30 90 (Rakel) eta 79 87 95 (Mabel) zenbakietara. Ibai - Arte elkarteak antolatuta.

6 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Apolo 13" 7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria Askatu lemapean kontzentrazioa plazan arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta
- **GOMA ESPUMA IKASTARAREN HASIERA**
AEDko Ixe-lxa komiki taldeak antolatuta astelehenero arratsaldeko 6etatik 9etara. AEDko lokalean emango da ikastaroa.

7 ASTEARTEA

- **ZINEA**
Ikuslearen eguna. "Apolo 13" 7etan eta 7.30etan.
- **HITZALDIA**
Emakumeen eskubideei buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan Monterronen. Hizlariak: Gristina Arrieta eta Silvia Fernandez de Barrena abokatuak. Antolatzailea: Gipuzkoako Emakume Abokatuen Batzordea.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Azaroaren 3tik 17ra, "Tanzania Africa viva" erakusketa Monterronen. Patxi Sanchezen erakusketa. Orduategia: egunero 6etatik 8ak arte eta jaiegun eta larunbatetan eguerdiko 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

8 ASTEAZKENA

- **EUSKAL HERRIKO HISTORIARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: Deba Garaia XVI. mendean. Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Uribarriko Jubilatu etxeak antolatuta.

9 OTEGUNA

- **ZINE KLUBA**
"Mucho ruido y pocas nueces" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 350 pta. eta gazte txartelarekin 300 pta.



JULIO GALARTAREN ERAKUSKETA GASTEIZEN

Azaroaren 13tik 23ra Euskadiko Kutzako erakusketa aretoan, margolari arrasatearraren erakusketa. Orduategia: Egunero 6etatik 9etara eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 9ak arte



ARTISAU LANGINTZEN AZOKA GATZAGAN

Azaroaren 12an Leintz Gatzagan Artisau langintzen azoka Frontoian. Orduategia: Goizez 10.30etatik 2etara eta arratsaldez 5etatik 8ak arte.

KIROL IKASTAROAK AUKEAK ANTOLATUTA

Igeriketa, muskulazio, aerobic eta mantenimendurako gimnasia ikastaroak Musakolako kiroldegian. Aerobic ikastaroan dagoneko ez dago lekurik baina izena eman nahi duzuenontzat zerrenda berria zabalduko da. Nobedade moduan hiru ikastaro berri: Mantenimendurako gimnasia Iturripeko kiroldegian arratsaldeko 3.30etatik 4.20etara. Eguerdian igeriketa ikastaroa nagusientzat 1etatik 1.45ak arte eta uretako gimnasia arratsaldeko 3.30etatik 4.15etara. Informazio gehiagorako deitu 79 04 27.

ESPERANTO IKASTAROA

Euskal Herriko Esperanto Elkar- teak Esperanto ikastaro trinkoa antolatu du. Abenduaren 6tik 10era emango da Gasteizko Carlos Abaitua aterpean. Ikastaroa bi mailatan banatu da, oinarrizkoa eta goi mailakoa. Ikasle eta lan barik daudenek 7.000 pta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 10.000 pta. Informazio gehiagorako dei 945 22 45 50 eta 94 449 75 77 zenbakietara.

“... Nahiz eta ekonomia %3 hazi enplegu berriak ez ziren gauzatzen. Alemanek, 35 orduko aste laborala erreibindikatuz hasi ziren, baina Frantzia izan da (%12ko langabezi tasarekin), lanaren banaketari buruzko eztabaida soziala gehien garatu duena.

Eta Hego Euskal Herrian, emergentzia sozialean gaudelarik: langabeziaren tasa orokorra %24, emakumearena %32, eta gaztearena %55 (Europako altuena) dugularik, Eusko Jaurlaritzak formula berri horren aldeko aldarrikapena egin du. Hemen, formula berriaren aplikazioa, gure etorkizunerako hil ala biziko kontua bihurtu da eta honen gauzatze erreala, gure gizarte zibilaren eta mugimendu sozialen eskuetan dago. Gainera, gure herrian, iraunbizitzeko lanpostua, justizia sozialaren egarriarekin eta askatasunaren behararekin lotzen da. Horrela, lanaren banaketaren aldeko aurrepausoa, gizarte alternatiboaren eraikuntzaren barnean txertatzen da, aberastasunaren banaketarekin, esfera sozialaren garapenarekin eta gure herriaren subiranotasunarekin konbinatuz”.

Antton Mendizabal, Urriak 29.

ARGIA

“ATB, harrobi bihurtu baita. Telebistarako aurpegi eta langile berrien bila dabiltzanek maiz hantxe jartzen dute begia, nor topatuko ote. Izan ere, Arrasaten egiten den lana eskala txikitxoan eginga bada ere, medioa ondo ezagutzen duen jendearekin topo egingo dutela badakite. Horregatik klase eta lanbide ezberdinetako langileek topatu dute txoko bat beste telebistaren batean, Arrasate Telebistan ibili ostean”.

Arantxa Iraola, Urriak 28.

Egunkaria

Zer nabarmenduko zenuke Arrasateko irratizaleen bostgarren urtemugan?

Orain dela bost urte hainbat irratizale bildu eta Arrasateko Irratizaleen kultur elkarteak sortu genuen. Kultur elkarteak izanik lokala eskatu genuen, eta Udalak Erguin kalean txoko bat eman zigun. Elkarteak 36 bazkideetatik gehienak arrasatearrak gara baina badago inguruko herrietako jenderik ere.

Bazkideek ordaintzen duten kuotari eta Udalak urtero ematen digun dirulaguntzari esker bizi da elkarteak. Udalak urtero 80.000 pezeta inguru ematen digu bai-

na aurten 250.000 pezeta gehiago jaso ditugu, Arrasate Irratiaren hainbat arazo tekniko konpontzen lagundu dugu eta. Diru horrekin hainbat konponketa egin dugu lokalean eta ekipo berriak ere erosi ditugu. Hala ere oraindik badago zer konpondu. Eurria egiten dugunean, adibidez, itukinak izaten ditugu eta iaz horren ondorioz ordenagailu bat hondatu zitzaigun. Ea bada behingoz konpontzen diguten.

Urtean zehar Irratizaleen elkarteak hainbat ekintzetan laguntza eskaintzen du. Inguruko herrietako txirrindulari eta atletismo txapelketetan izaten gara eta horrez gain, eskoletan ere jarri izan dugu erakusketaren bat. Gainera, Arrasatera heldu eta enpresaren bat aurkitu ezinik dabilzan zenbait kamioilari eta banatzaileari laguntzen diogu irratia bidez lantegi hori non dagoen esanez. Egunean zehar gidari askok deitzen du informazio eske. Bestalde, guk geuk denbora pasatzen dugu irratiekin jolastuz eta esperimentuak ere egiten ditugu.



Gabriel Garcia
Arrasateko Irratizaleen Kultur Elkarteak lehendakaria.



Kalitate gorena leihoretan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

LARUNBATAK LARUNBATAK

INGELESA eta ALEMANA
APUNTA ZAITEZ ORAINDIK EGIN EZ BADUZU

LARUNBATAK
9.30etatik 12.30etara

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Araba Etorb., 4
ARRASATE

Tfnoak: 79 01 32
79 65 54

Pleno luzea eta istilutsua

Bost mozio aztertu ziren joan den ostiralean egin zen udal plenoan. Senideak-en mozioa puntuz puntu bozkatu zen eta Institucio-nes Penitenciarias-i presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen zuen puntua aurrera irten bazen ere, espetxeak bisitatuko zituen batzordea osatzea ez zen onartu EAJk mozio alternatiboa jarri zuen Senideak-en eskaria Eusko Legebiltzarrera eramatea proposatuz eta ETArri Aldaia libre ustea exigituz eta hori izan zen gehiengoak onartu zuen mozioa.

Ondoren, frantsesak Pazifikoan egiten ari diren probak salatzeke EKIk jarri zuen mozioa aztertu zen eta horren bi puntu ahobatez onartu baziren ere, Garoña istearen aldeko iritzia eskatzen zuena onartu barik geratu zen.

Bukaeran, INEMen inguruko mozioak aztertu ziren. EAJ, PSE-EE eta EAren mozioak aurrera egin zuen eta baita Ezker Batuaren mozioaren puntu batek ere: INEM berriz ere Arrasaten jartzea proposatzen zuena.



Skaner berria Ospitalean

Punta-puntako teknologiarekin egindako skanerra erosi dute Eskualde Ospitalean eta astelehenean skanerrak zein erabilera duen azaldu zuten ospitaleko arduradunek. Sabeleko, toraxeko eta buruko gaisotasunak argitzeko erabiltzen da skanerra eta egunean lau gaiso pasatzen dira makina horretatik. Urte bukaerarako, berriz, egunean hamar skaner egingo direla uste dute. Skanerrak 44 milioiko kostua izan du eta horrez gain, 24 milioi gastatu dira skaner gela egokitzen. Zerbitzu berri horrekin, ez dute Gasteizera joan beharko skanerretik pasatzeko beharra duten gaisoek.

Zinegotziek ezezik pleno aretora hurbildutako hainbat lagunek iritzia eman zuen presoan egoera zein den jakinarazteko. Senideak-en mozioa bozkatzerakoan, zinegotzi batzuen aurkako arraultzak eta irainak bota zituzten hara hurbildutako norbaitzuk.

Plenoa amaitutakoan, Herriko Plazan bildutako lagun batzuk berriz ere arraultzak bota zieten Udaletxetik irtetzera zihoazen zinegotziei. Udaltzaingoak autoz eraman behar izan zituen zinegotzi sozialistak, bakoitza bere etxera.

Jende asko Senideak-en enkarteladan

Eguerdiko 12etatik arratsaldeko 8ak arte iraun zuen Senideak elkarteak domekan presoan eskubideen alde burutu zuen enkartelak. Zenbat jende hurbildu zen zehaztea ezinezkoa den arren, jende ugari gerturatu zela esan daiteke. Enkartelada egindakoan manifestazioa egin zen eta 700 lagun inguruk parte hartu zuen istilurik barik bukatu zen ekintza horretan.

Manifestazio nazionalera joateko deia


“Gogor eta tinko, datorkiguna geurea eginaz” lelopean, datorren zapatuan manifestazioa egingo da Gasteizen Jarraik deituta. Astelehenean Arrasateko Jarraik prentsaurrekoa eman zuen manifestaziora joateko deia eginaz. Prentsaurrekoan azaldu zutenaz, azken egunotan euskal gazteria eta Jarrai taldea jasaten ari diren zaparrada polizial eta judicialari erantzutea da manifestazioren helburua. Arrasatetik auto karabanan joango dira Gasteizera.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



* Xabier Zubizarreta

Abertzale, intsumiso, antimilitarista

Hiru hitz, hiru kontzeptu, hiru aurpegi errealitate berberari atxikiak, hirukoa hain modan dugun honetan.

1966, nik neuk soldaduzka egin nuen. 1996, epaitua izango naiz intsumisoen alde jokatzearren.

Halere historia honek ez ditu 30 urte. Herri intsumitu bateko seme-alabak gara. "Domuit baskones" ezin inork egiaz esan, eta hartan jarraitzen dugu. Herri txiki bat gara; herri txiki eta ukatu bat; hargatik intsumiso; hargatik abertzale. Ez dira gauza berbera, baina sustrai beretik sortutako bi adar bai. Abertzale gara eta begirunea diegu gure auzoko herriei, hortan oinarritu behar da gure

antimilitarismoa, militareria baita herriak menderatzeko historian zehar beti erabili den bitarteko arbuigaria. Bai eta euskaldunon aurka ere. Hala ere "Arbol Malato"-n bukatu izan da beti gure indarra, geure burua defendatuz bakarrik. Bortizkeriari, "venga de donde ven-

.....

"Euskal gazteria kanpotar armadei (frantses nahiz espainol) uko egiten ari da nabarmenki, kosta ahala kosta"

ga"tik baidator, beti ere aurre eginez.

Eta egunotan, historiak, berriz ere eta beste behin aurpegi berdina erakutsi du. Euskal gazteria kanpotar armadei (frantses nahiz espainol) uko egiten ari da nabarmenki, kosta ahala kosta.

Ezin ditugu bakarrik utzi. Euskal Herriak bizirauteko daramatzen borroka mota guztiekin batera, hau ere (abertzale garelako militarismoari intsumiso gatzazkio) Euskal Herria errespetatzen ez duten (hartarako sortuak dira) armadei uko eta euren izaera eta nortasuna defendatzen duten herri guztiekin bat egiten dugu.

Euskal gazteria intsumiso; euskal abertzaleok beraiekin bat eginik, erresuma (inperio) guztien aurka.

1966-1996. Ez dira 30 urte (bakarrik) igaro. Ni neu punteria egiten ikastera apuntatu ninduten. Desapunta gaitzen denok eta lehen bailehen.

* HBKO KIDEA

USTEAK USTE

NOIZ ARTE HORRELA?

Ez dakit zergatik hainbeste harridura, hainbeste kezka. INEMen tramiteak euskaraz egiteagatik langabezi saria kendu diela hainbat laguni? Zer nahi duzue bada? Orain 13 urte besterik ez dira Euskaren Legea martxan jarri zenetik. Beraz, denbora labur honetan zer aldaztea espero duzue? Ulertuko duzue ezin dela gauza handirik egin, nahiz eta borondate osoa izan, zeren hori bai, borondatearik ez da falta, zalantzarik ez izan horretaz. Falta dena denbora da, agian 100, 200 urteren buruan gauzak zertxobait aldatuta egongo dira, baina inor eta ezer traumatizaturik egin behar dira gauzak. Euskaraz bizi nahi eta, besteak beste, hainbat Administrazio arlotan (ez Administrazio zentrolean bakarrik, zoritxarrez) ezin dutenentzat traumatizantea dela? Bai zera! Gauzak bere kontextutik ateratzeko gogoak! Salaketak, epaiketak... zertarako? Gauzak onean konpontzen dira. Hara, Arartekoak ere, nahiz eta berak orain arte euskara ikasteko denborarik ez izan (agian 50/100 urte barru, nork daki?), gaia sakonki aztertu ondoren, Espainiako Gobernuko ordezkariari eskaria egin dio, uste baitu "balitekeela kasu honetan" Administrazioarekin harremanak euskaraz izateko eskubidea hautsia izana. Eta euskarari dagokionez Arartekoak duen agente morala kontuan hartzen badugu, zalantza izpirik ez izan ordezkariorek kasu egingo diola. Beraz, INEMen gertatu dena eta beste antzerako kasuak, anekdota hutsak direnez, egon lasai. Denbora, hori da arazoa, eta ez beste ezer.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

PUB HAIZEA





Giro beroa egon zen plenoan. Pleno aretora hurbildutakoek arraultzak jaurtikiz adierazi zuten haserrearekin.

Balorazio desberdinak azken plenoaren inguruan

Ostiraleko pleno istilutsuaren gainean, iritzirik desberdina dute Udaleko alderdi politikoek. HBren ustez garrantzitsuena ostiralean berriz ere justiziazko eskari bat ukatu izana da. "Injustizia nabarmena denean eta egoera hori konpontzeko ezer egiten ez bada, bakoitzak bere jarreraren ondorioak asumitu behar ditu". Xabier Zubizarretak adierazi duenez, Senideak-en mozioa bozkatu zenean Plenoa bertan behera uzteko eskaria egin zioten, baina momentu hartan ez zela beharrezkoa pentsatu zuen.

EAJren iritziz, berriz, plenoa bertan behera utzi behar zen, egoera ez zen aurrera egiteko modukoa eta. Alderdi jeltzalearen ustez, ostiralean gertatutakoa ezin da onartu. J.M. Loitiren berbetan, "presoen inguruan EAJk jarritako mozioa ez zen entzun ere egin. Gainera, aurreko legegandian ere presoen inguruan mozioa onartu zen baina ez zen gauza handirik egin, eta txostenik ere ez dugu ikusi".

PSE-EErentzat, "Arraultzak jaurtitzea bezain larria da edozein momentutan jen-

deak plenoa geratzea eta irainka hastea. Sozialistentzat "ez da normala eta zerbait egin beharko da". Jimenok esan duenez, "Udalean ez dago bozeramaileen batzordea eta komenigarria litzateke, arazoren bat dagoenean bozeramaileak bildu eta horri buruz hitzegiteko balioko luke eta".

EAKo Gallastegiren hitzetan "HB eta horren ingurukoek adierazpen askatasuna aldarrikatzen dute baina eskari hori ez dute eurek betetzen". EAKoek gainera, alkatearen jarrera pasiboa izan zela uste dute. Hala ere, ostiralekoa behin gertatutako zerbait izatea espero dute, eta ezer erabaki baino lehen berriz errepikatuko ote den ikusi beharko dela uste dute.

EBtik azaldu dutenez, herritarrei plenetan parte hartzeko aukera eman behar zaie, "baina errespetua egon behar da nahiz eta esaten dena gustoko ez izan". Tijeroren esanetan, "herritar batzuen iritzia interesgarria iruditu zitzaigun eta ulertzen dugu inpotentzia sentituko dutela, baina plenoek arazoak bideratzeko balio behar dute".

Telefonikari antena margotzea eskatu

Murugainen jarrita daukan antenaren inguruan errekerimendua jarri zion Udalak Telefonikari. Antena handiegia zela eta aldatzeko eskaria egin zion Udalak baina Telefonikak, hegazkinak ohartzeko dela hain handia erantzun du. Hori dela eta indarririk gabe utzi da errekerimendua baina antenaren kolorea aldatzeko eskatu dio Udalak.

Baserri bideen ordenantza aztertzeo eskakizuna

Gesalibarko auzo alkateak onartu berri den baserri bideen ordenantza berrikustea eskatu du. Berrikusten hasi baino lehen ordenantza boletinean agertu behar dela eta Udalak itzaroteko eskatu dio.

Errukane Aperribai, auzo horretako alkatearen ustez, ordenantzen 20 eta 21. artikuluetan desberdintasun nabarmena ageri da ohiko eta noizbehinkako erabiltzaileen artean. Ohiko erabiltzaileek, inguruan etxebizitzaren bat dutenek, auzolan bidez kostuaren %25a ordaindu behar dute eta mantenimenduaren ardura hartu. Noizbehinkakoek, berriz, ez dute bidea ordaindu behar eta mantenimenduaren ardurarik ere ez dute.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84




Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

PAVIMENTOS AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA



Garbiago produzituz, Deba erreka bizirik ikusteko aukera izango dela espero da.

Jaurlaritzaren ingurugiro plana aurrera doa bailaran

Oraindik azken hitza eman ez badute ere, hamabost enpresa ari dira Jaurlaritzaren Ingurugiro sailaren planean sartzekotan. Plan horren helburua, Deba Garaiko enpresa batzuetan gutxiago kutsatuz produzitze-ko plana ezartzea da.

Planaren lehen fasean aurrikusten denez, lehendabizi enpresa horietan ekoauditoria egingo da. Ekoauditoria kontsultora pribatuek egingo dutenez, kontsultoreek ikerketa egiteko eskariak bidali dituzte Mankomunitatera. Egunotan, Mankomunitateko eta IHOBEko arduradunek (planaren arduratzen teknikoak eramango dutenek) eskari horien berri emango die hamabost lantegiei eta aza-

roaren bukaerarako, ekoauditoria zeinek egingo dien eta planean sartuko diren ala ez erabaki beharko dute enpresek. Cristina Iraolagoitia Mankomunitateko teknikariaren iritziz, "orain arte aurrera egin duten hamabost enpresa horiek planean sartzea erabakiko dutela espero dugu".

Ingurugiro sailak laguntza ekonomikoa eta teknikoa emanez lagunduko du. Planak izango duen kostuaren %28a enpresek ordainduko dute eta gainontzekoa Jaurlaritzak emango du. Plana diru publikoarekin finantzatzen denez eta enpresa batzuk haziendarekin edo gizarte segurantzarekin zorrak dituztenez, ez dute jarraitzerik izango.

Dirulaguntza eskabidea

Udalak lanerako prestakuntza ikastaroak antolatu nahi dituenez, horiek aurrera eramateko dirulaguntza eskaria egin dio INEMi. Jardingintza eta basogintza ikastaroak antolatu nahi dira eta lan-gabetuek izango dute horietan parte hartzeko aukera.

Osakidetzari obra baimenik ez

Eskualde Ospitalean egiten ari diren zabalkuntza lanen bigarren fasea ezin hasiko da, Osakidetzak behar den dokumentazio guztia Udalera bidaltzen ez duen bitartean. Osakidetzak bigarren faseko obrekin hasteko baimena eskatu du Udalean, baina proiektuaren atal batzuk aldatzea eta dokumentazio gehiago bidaltzea eskatu diote hiritzintzakoek.

Ospitaleko arduradunek astelehenean adierazi zutenenez, eraikin berria egiteko lanak aurrikusitako epeen barruan egiten ari dira. Hasierako fasea bukatu berri, orain eraikina jasotzen hasiko dira. 97rako obra guztia bukatuta egingo dela espero dute.



Gabonetarako egin ezazu betirako opari bat, eta...

Zuretzat beste opari bat lortu ahal izango duzu NAROKIn.

10.000 ptatik gorako erosketa egiten duzuenen artean urrezko gargantila eta eskuturrekoa zozketatuko dira.

**Erdiko kale, 23
ARRASATE • Tfnoa: 79 20 47**

NAROKI

IZEN PROPIOAK



Emakumeendako II. Mus Txapelketa burutu zen Leintze elkartearen zapatuan. Bikote ugari hartu

zuen parte eta lehia bizian aritu ziren musean. Arrasateko emakumeek kartetan trebeak direla argi

utzi zuten eta guztien artean onenak Arantzeta Barrutia eta Feli Iriarte izan ziren. Zorionak!

● **Eusko Korus** abesbatzak polifonia eta folklore sailetan lehen saria jaso zuen Tolosako Abesbatz Lehiaketan. Eusko Korus abesbatza Donostiako Orfeoia, San Ignazio Abesbatza eta Arrasateko Goikobaluko partaideek osatzen dute eta Jose Sainz zuzendariaren gidaritzapean aritu da. Arrasateko Goikobalu taldeko 18 lagun izan dira Eusko Korus-en partaide.

● Deba Garaiko Mankomunitateko batzordeak osatu ziren asteazkenean. **Mikel Larreak**, Antzuolako alkateak, Kontu, Ekonomia eta Pertsonal saila zuzenduko du. **Ignazio Gimeno**k Lurralde antolamenduaren batzordea. Ingurugiro batzordea **Isabel Gallastegi**. **Jose Luis Irizar** Oñatiko zinegotziak, Hiltegiaren batzordea. **Angel Mari Iturbek** Oñatiko alkateak, Garapen Ekonomikorako eskualdeko agentziaren batzordea; Zerbitzuen batzordea **Patxi Basaurik** Elgetako alkateak.



1.949 urtean jaiotako kintoek egun berezia izan zuten zapatuan. Eguerdiko 12.30etan San Frantzisko elizan elkartu ziren hildako kintoen alde meza entzuteko. Ondoren, txikiteoa eta 2.30ak aldera bazkaria Meson Manolon. Kontu kontari eta lagun artean egoteko aprobetxatu zuten eguna.



● Ikastetxeetako Eskola kontseiluetarako Udal ordezkariak izendatu dira. Eskola politeknikoko Udal Ordezkaria **J.J Saenz**, Erguin Herri eskolako **Yolanda Perez de Arenaza**; San Viatorkoa **Jabier Aresti**. Musakolako Andoni Kepa Bedia-launeta Batxilergo Institutokoa **Ignazio Jimeno**. San Frantzisko Xabier ikastola **Pello Urizar**. Almenekoa **Isabel Gallastegi**, San Andres eskolako **Angel Tijero** eta La Merced-ekoa **Rafaela Romero**.



San viator ikastolako neska mutilak perretxi-kuak jasotzen ibili dira aurreko asteetan eta jasotako guztiekin erakusketa jarri zuten ikusgai domekan Seberon. Goizeko 11etatik 2etara perretxiku ugari ikusteko aukera izan zuten arrasate-arrek.



Arrasateko Udaltzainek todoterreno berria estreinatu dute. Ford Maveric zuria ostiralean hartu zuten Mugarrin. Auto berriarekin basoetan zehar ibiltzeko eta auzoetara

heltzeko aukera gehiago izango dute. Oraindik kotxeak ez du Udaleko anagrama baina irudi korporatibo berria kaleratzen dutenean Todoterrenoari jarriko diote.



David Scott Urbina Maltzaga taldeko jokalaria ohiak omenaldia jaso zuen domekan. Urbina Maltzaga eta CAB Coruña taldeen arteko norgehiagoka hasi aurretik Indianako jokalaria kantxa erdira irten eta Jose Mari Balzategi taldeko lehendakariaren eskutik oroigarri bat jaso zuen. Scott emaztea eta semearekin etorri zen.



Belisario Alonsok eta Manuela Alvarezek urrezko eztaiak bete zituzten urriaren 14an. Duela 50 urte Salamancan ezkondu zen bikotea eta urrezko eztaiak Arrasaten ospatu dituzte. Zapatuan senitartekoekin batera bazkaria egin zuten Bergarako Zabala jate-txean, 25 lagun elkartu ziren. Belisario eta Manuelak bi seme eta bi alaba dituzte. Zorionak eta urte askotarako!



Zaldibarko Futbito Txapelketa

*Laugarren ihardunaldia •
Protagonistak: Xabier Iturbe
eta Juan Bautista Bolinaga •
Taldeen aurkezpena:
Artzankos-Udalaitz, D.A.-
Iriztu, Nuevo taberna eta Los
Dalton*

Zaldibar txapelketako 4. ihardunaldia jokatu da asteburuan eta dagoeneko, talde batzuk aurrea hartzen ari dira sailkapenean. Orlando piratasek neurketa guztiak irabazi ditu eta 8 punturekin A taldeko buruan dago. Txeyenex B taldeko lehen postuan dago. D taldean ere lider bakarra dago Anbotoste eta azken taldean hiru talde daude 8 punturekin: Aurrera Bolie, Pub People eta Cerveceria Leintz.

Jokatu den ihardunaldian hiru emaitza aipatuko ditugu. Argi ibilik lehen neurketa galdu du Totemen kontra. Ati que te importa eta Insert Coin taldeek elkarren kontra jokatu zuten eta Insert Coinek pronostiko guztiak hautsiz 5 eta 1 irabazi zuten. Bes-talde, guztien artean neurketa onena Fosforos eta AC Surcosen artekoa izan zen. Azkenean launa berdindu zuten.



URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

ANBOTO
BODEGA

Anzo giro jatorra!
Anboto, 1 behea
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Orlando Piratas	4	2	0	0	33	5	8
Totem	4	3	1	0	17	7	7
Sokoakoak	4	3	1	0	31	14	7
Arrasate Kirolak	4	3	1	0	11	6	7
Sortu Informatika	4	3	0	1	32	13	6
Kamasutra	4	3	0	1	14	6	6
Frantziskanner	4	2	1	1	14	9	5
Argi ibili	4	2	1	1	21	18	5
D.A Iriztu	4	2	0	2	19	13	4
Uglys Txinato	4	1	2	1	18	16	4
Jotakabau	4	1	2	1	12	16	4
Kakajauri	4	1	0	3	11	15	2
Gualtrapas	4	1	0	3	10	18	2
Toss Tehaman	4	1	0	3	11	28	2
Alealee	4	1	0	3	10	26	2
Tronkoteak	4	0	1	3	3	9	1
Bukanak	4	0	0	4	7	19	0
Gaztetzokoa	4	0	0	4	10	45	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Txeyenex	4	4	0	0	13	5	8
Okoretegi taberna	4	3	1	0	14	3	7
Fosforos	4	3	1	0	21	10	7
AC Surcos	4	3	1	0	16	12	7
Adelaida Haizea	4	3	0	1	29	11	6
Lorategi	4	3	0	1	10	5	6
Hirei	4	3	0	1	13	9	6
Altza Porru	4	2	0	2	15	11	4
Ojo visore	4	2	0	2	16	14	4
6° Proiektua	4	2	0	2	14	13	4
DKB	4	2	0	2	15	18	4
Aizpun Bila	4	1	1	2	6	10	3
Los heredia	4	1	0	3	8	10	2
Berango Sukaldeak	4	1	0	3	8	10	2
Fraguel gol	4	1	0	3	9	15	2
Los Dalton	4	0	0	4	7	22	0
Kopyprest	4	0	0	4	6	33	0
Kirten Tropel	4	0	0	4	4	20	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Anbotoste	4	4	0	0	21	6	8
Betrayer	4	3	1	0	20	13	7
Irati	4	3	0	1	13	11	6
Ati que te importa	4	3	0	1	13	12	6
Ganbelas	4	3	0	1	15	12	6
Trikiti	4	2	1	1	18	10	5
Nuebo taberna	4	1	3	0	16	10	5
Los Dimy	4	2	1	1	12	11	5
Borroch Roll	4	2	0	2	13	10	4
Lautherbruner	4	2	0	2	23	16	4
Insert Coin	4	2	0	2	14	11	4
Txarokis	4	1	0	3	18	15	2
No Comment	4	1	0	3	11	14	2
Arrasate Zoo	4	1	0	3	6	13	2
Const Fercon	4	1	0	3	15	29	2
Potrosorri	4	1	0	3	5	11	2
Elisabeth	4	1	0	3	6	16	2
HMKL	4	0	0	4	7	26	0

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Aurrera Bolie	4	4	0	0	12	4	8
Pub People	4	4	0	0	34	11	8
Cer Leintz	4	4	0	0	20	7	8
Koka Juniors	4	3	0	1	16	9	6
Zotz Motz	4	3	0	1	13	12	6
Danok Lagun	4	2	1	1	19	14	5
MSM Ingenier	4	2	0	2	16	7	4
Ke Oxtias	4	2	0	2	30	17	4
Leya	4	2	0	2	14	13	4
Kinito Team	4	2	0	2	17	17	4
Perrahotsa	4	2	0	2	12	13	4
Exc Lete	6	2	0	2	19	21	4
Artzankos Udalaiz	4	1	1	2	9	8	3
Resakas	4	1	0	3	4	19	2
Pepelus	4	0	1	3	8	18	1
Petroleros	4	0	1	3	6	16	1
Krskibalda	4	0	0	4	9	22	0
Baneuko	4	0	0	4	4	43	0

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 0 Orlando Piratas 2
Arrasate Kirolak 1 - Tronkoteak 0
Argi Ibili 2 - Totem 6
Bukanak 1 - Frantziskanner 4
Sortu Informatika 6 - Jotakabau 1
Toss - Tehaman 3 - Uglys Txinato 6
Gaztetzokoa 3 - Sokoakoak 12
D.A Iriztu 10 - Alealee 1
Kamasutra 5 - Gualtrapas 0

B Taldea

Los Heredia 1 - Txeyenex 4
AC Surcos 4 - Fosforos 4
Ojo Avisore 9 - Kopyprest 2
Berango Sukaldeak 0 - Lorategi 2
Hirei 4 - Altza Porru 2
Fraguel Gol 3 - Los Dalton 1
Aizpun Bila 1 - Okoretegi Taberna 1
Adelaida Haizea 5 - 6° Proiektua 0
DKB 4 - Kirten Tropel 1

E Taldea

Ex Lete 3 - Pepelus 2
Pub People 5 - Kinito Team 3
Resakas 1 - Artzankos Udalaiz 0
Zotz Motz 5 - Ke Oxtias 0
Aurrera Bolie 10 - Baneuko 1
MSM Inge 3 - Koka Juniors 4
Petroleros 3 - Cer Leintz 6
Danok Lagun 3 - Perrahotsa 5
Krskibalda 3 - Leya 5

D Taldea

Cons Fercon 3 - Betrayer 6
No Comment 2 - n Elisabeth 3
Anbotoste 4 - Borroch Roll 3
Insert Coin 5 - Ati que te importa 1
Potrosorri 3 - HMKL 0
Nuevo Taberna 2 - Trikiti 2
Los Dimy 5 - Txarokis 3
Ganbelas 3 - Arrasate Zoo 1
Lautherbrunnen 4 - Irati STS 5

Hurrengo partiduak

Larunbat 4

Zaldibar

8.50 Lautehrbrunnen - HMKL
10.00 Toss Tehaman - Gualtrapas
11.00 Petroleros - Ke Oxtias
12.00 Krskibalda - Baneuko
13.00 Insert Coin - Borroch Roll
14.00 Pub People - Perrahotsa
15.00 Cons Fercon - Potrosorri
16.00 Anbotoste - Txarokis
17.00 Adelaida Haizea - Los Dalton
18.00 Zotz Motz - Artzankos Udalaiz
19.00 Fosforos - Txeyenex

Iturripe A

11.00 Kakajauri - Sortu Informatika
12.00 MSM Ingenieria - Leya
13.00 Los Heredia - Hirei
14.00 Resakas - Cerv Leintz

15.00 Ganbelas - Trikiti
16.00 AC Surcos - 6° Proiektua
17.00 Argi Ibili - Sokoakoak
18.00 No Comment - Arrasate Zoo
19.00 D.A Iriztu - Uglys Txinato

Iturripe B

13.00 Fraguel Gol - Kirten Tropel
14.00 Exc Lete - Aurrera Bolie
15.00 Kamasutra - Jotakabau
16.00 Berango Sukaldeak - Kopyprest
17.00 Arrasate Kirolak - Alealee
18.00 DKB - Altza Porru
19.00 Gaztetzokoa - Frantziskanner

Igandea 5

Zaldibar

8.50 Elisabeth - Betrayer
10.00 Bukanak - Totem
11.00 Aizpun Bila - Lorategi
12.00 Los Dimy - A ti que te importa
13.00 Kinito Team - Pepelus

Iturripe A

11.00 Ojo Avisore - Okoretegi Taberna
12.00 Danok Lagun - Koka Juniors
13.00 Nuevo taberna - Irati STS

Protagonistak

Xabier Iturbe Tronkoteak

— Zer dela eta txapelketatik kanpo?


— Zapatuan arrea ezkondu zitzaigun. Ezkontza gauetz izan zen eta hurrengo egunean ezin ohetik jaiki.

— Ezkontza zenutela jakinda, nola ez aurretik abisatu?

— Uste genuen jaikiko ginela, horregatik ez genuen ezer esan.

— Zer moduz ezkontzan?

— Fenomeno, asko jan,



asko edan, dantzan egin... primeran pasa genuen.

— Txapelketatik kanpo. Orain zer egin behar

duzue?

— Oporrak hartu, pena handiz baina erremediorik ez dagoenez tira!. Gainera orain ostiral eta zapatu gauetan juer-ga gehiago egin ahal izango dugu.

— Zein zen txapelketan zuen aurtengo helburua?

— Aurten txapeldun izateko itxaropena genuen. Hortxe ibiliko ginen baina orain ezer.

— Txapelketako afizio onena duzue. Orain zuen jarraitzaileak aspertu egin-goa dira, ezta?

— Egia da, afizio onena

gurea zen. Orain zer egingo duten ez dakit, baliteke aste-bukaeratan guztiok mendira joatea edo auskalo zer.

— Txapelketako talde faboritoak?

— Betikoak ibiliko dira lehian. Adelaida, Fosforos, Argi ibili. Pena gu ez gaude-la, bestela hortxe onenen artean egongo ginatke.

— Uribe Auzoan parte hartzeko asmorik?

— Bai horixe. Txapelketa hasten denerako sasoiari jarriko gara, Zaldibarren egin ez duguna Uribekoan egiteko.

J. Bautista Bolinaga Los Heredia

— Los Heredia taldekoentzat nola doa txapelketa?

— Ez oso ondo, lau neurketa jokatu ditugu eta bakarra irabazi.

— Hurrengo fasera pasatzeko itxaropenik bai, ezta?

— Bai hori galtzen den azkena da, gainera hemendik aurrerako neurketa guztiak irabazi egin behar ditugunez, bigarren fasera buru belarri

sartuko gara.

— Txeyenexen kontra 4 eta 1 galdu, talde gogorra da?

— Gogorra, gogorra ez dakit, uste dut zortea izan dutela eta horrexegatik irabazi digutela.

— Txapelketako antolakuntzaren gainean, zer-bait esateko?

— Antolakuntza orokorrean ondo dago baina epaileen arazoa ez. Epaitzeko ardura antolakuntzak hartu beharko luke. Horrela izanda, gaur egun egoten den



hainbat arazo ekidituko lirakete.

— Partidu ostean bi tal-

deen artean babajana, nolatan?

— Babajana izan dugu Txeyenexekoekin, lagunak gara eta aurretik pentsatu genuen egitea. Nork ordaindu musean jokatuko dugu, galtzen duenari ordaintzea tokatuko zaio.

— Los Heredia izena nondik dator?

— Azken orduko izena da, ez genekien zein izen jarri eta taldeko bati bururatu zitzaion Los Heredia, gainontzekooi ondo iruditu zitzaigun eta hori da istorio guztia.

egizabal

poltsak • oinetakoak

Ferrerias, 9
ARRASATE
T9 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70



UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412



Artzankos-Udalaitz



D. A.-Iriztu



Nuevo taberna



Los Dalton



**Egun-eguneko
moda gaztea
jazteko ez duzu
taila arazorik
izango. Eta
haurdun
bazaude ere hau
da zure
jantxidenda.**

Laura

**Erdiko Kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE**

ONCEko hamaikako arrasatearra

Maidar Egües

Zortea ate joka dabil Arrasaten. Azken lau hilabetetan ONCEK 100 milioi ekarri ditu herrira eta horrek kupoi salmenta igo du. Ehunpezetaren truke itxaropen apur bat banatzen dute Arrasateko 11 kupoi saltzaileek eta oso pozik daude arrasatearrek eurekin duten harremanez. Hala ere bizimodu gogorra daramate. Lana ez zaie falta baina egun osoa kalean eta zutik pasatu beharrak ez dio mesederik egiten osasunari.

1 938. urtean ONCE elkarte sortu zenetik hona, asko aldatu da kupoi saltzen zuen itsuaren edo elbarrituaren irudia. Garai hartako kupoi-saltzailea ezagutzeko aukera izan duenari, eskale itxurako gizon ala emakume zikin baten irudia etorriko zaio burura. Gaurkoek ez dute horrekin zerikusirik. Gauzak asko aldatu dira Estatuak ONCE elkarte ofizial

egin zuenetik. Atzean geratu dira 10 zentimoko kupoiak eta saltzaileen bizimodu eta itxura ziztrina. Elkartean lan-hitzarmenek agintzen dute, langileen eskubide eta betebeharrak arautzeko jakina: 8 lanorduko eguna, Gizarte Segurantza, hileko gutxieneko 120.000 pta.ko soldata, gehiago salduz gero irabazien portzentai bat, behin-behineko ala behin-betiko kontratua eta zabor-kontraturik ez.

ARRASATEN DUELA 20 URTETIK

Arrasateko Aldai kalean dago Deba Bailarako ONCEko langileak ordezkatzeko dituen bulegoa. Arrasaten, bitxia bada ere, ONCEko 11 kupoi-saltzaile daude. Duela 20 urte zabaldu zen bulegoa. Egin beharrak kupoi saltzaileak atenditu, kupoiaren banaketa egin eta ikastaroak antolatzea dira. Bulegoan Amaia Zalakain oirtzuarak egiten du lan. Lan-kideak bezala, bera ere itxua da baina horretaz konturatzeko, begietara begiratu behar zaio, beste edozeinek bezala burutzen duelako dagokion lana.

Bere gabezia ohartzen da, baina ez lotsatu. Eskatutako datuak eman baino lehen, ONCEko langileen lana edozeinena bezalakoa dela argitu nahi du, duina. Are gehiago, gainontzeko langileek baino merito handiagoa dutela esaten du. "Euren lana oso gogorra da. Egun osoa kalean eta zutik pasatzen dute. Jendaurrean lan egitea ez da erraza. Gaur egun dauzkaten lan-baldintza onak ondo irabazita daukate, merezi dituzte" esaten du Amaiak.

Ez ei da erraza egunero 300 kupoi saltzea baina Arrasateko saltzaileek zortea dute. Arrasate Estatu osoan proportzioan kupoi gehien saltzen den herria da. Itxu-

raz jokurako afizio handia dago hemen eta "horri esker" —dio Amaiak— "herri hone-tako jendeak 11 itxu eta elbar-rituk soldata dexente bat iza-tea ahalbidetzen du. Gaine-ra, jendeak jakin ez arren, txarteltxoaren truke saltzai-leak poltsikoratzen dituen 100 pta. horiekin, gauza handiak egiten ditu ONCEk. 100eko txanpon horren bidez, bule-go honetan Braille ikastaro-ak ematen dira, laguntza-ekintzak antolatzen dira, itxuendako baliagarriak diren aparailu berrien ikerketa bul-

tzatzen da... hori guztia 100 pezetako txanpon bati esker. Gezurra dirudi baina diru kopuru txiki horri esker gau-za handiak egiten dira."

**AZKEN SARIEKIN
SALMENTAK GORA**

Proporzioan Arrasate Estatu osoan kupoi gehien saltzen den herria bada, ez da harritzekoa beste herrietara baino sari gehiago bertara etortzea. Azken lau hilabete-tan 50 milioiko bi sari etorri dira herrira, uztailaren 3an 55.340 zenbakia irten zen eta


duela gutxi, urriaren 18an, 16.453a. Oñatin ere izan da sari potolorik, irailaren 15ean 100 milioi, 37.922 zenbakia-ekin. ONCEko bulegoko datuen arabera, hileko 12 milioiko irabaziak ateratzen dira Arrasaten kupoi sal-mentaren bidez. Kopuru horren erdia sarietara bide-ratzen da, %20-22a soldatak ordaintzeko erabiltzen da eta gainontzekoa zerbitzu sozia-letan.

Arrasaten jasotako azken saria Jose Rodolfo Frailek eta Miguel Hernandezek sal-

dukako kupoiekin etorri zen. Bakoitzak 25 milioi banatu zituen baina eurek ez zuten txanponik ikusi. Hala ere poz handia hartu zutela adieraz-ten dute. Gainera, Jose Rodol-fok, "Txetxuk", 9 hilabete baino ez daramatza lan hone-tan eta hasi eta segituan sari bat emateak zortea ekarri die-zaiokela uste du.

Azken sari hauei esker kupoi-salmentak gora egin duela esaten dute saltzaileek eta hori eurentzat oso ona da. Salmentak beti horrela joatea nahi izango luketela diote.

Juan Manuel Arias, Javier Laiana, Angela Cuevas, Miguel Hernandez, Pili Jimenez, Enrique Decos, Jaime Nieto, Juanjo Ruiz, Ernesto Trigas, Imanol Etxeberria eta Jose Rodolfo Fraile dira Arrasateko "ilusio-saltzaileak". Euren kupoi-tiretatik txartel-xo bat kendu eta erosle baten eskuetan jartzen dutenean, ilusio txiki bat saltzen ari dira, esperantza apur bat. Horregatik akaso, erosleek per-tsona hauengan espe-rantza bat ikusten dutelako dira hain maitatuak. Kupoi-saltzaile guztiak oso pozik daude arrasatear-ren tratua. Lanbide gogorra daukatela baino maitatuak senti-tzen direla esaten dute. Hurrengo lerroek Arrasateko hainbat txokotan egoten diren kupoi saltzaile batzuen hitzak jasotzen dituz-te.



ERNESTO TRIGAS


Lan gogorra da baina gustora nago" dio Arrasaten bizi den gali-ziar itxu honek. Arbola-petako portaloian egoten da kupoia saltzen eta ber-tan egunero pasatzen dituen 9 orduetan sekula ez dago bakarrik. Honez gero hamaika lagun egin du. Ikusmenik gabe gera-tu zenean 8 urte pasatu zituen etxetik irten barik baina azkenean ONCEn afiliatzea erabaki zuen. Gaur egun behin-betiko kontratua dauka eta bere lanarekin pozik dago; "Arrasateko jendea oso ondo portatzen da nirekin"


esaten du.

Egunean 300-400 kupoi saltzen ditu baina kopuru hori egunaren ara-bera asko aldatzen ei da: "Astelehen, astearte eta ostiralak dira egun one-nak". Denbora gutxi dara-ma kupoia saltzen baina lan gogor honen prezioa ordaintzen hasi da, "Arbolapetako Portaloi-ra ez da eguzki izpirik heltzen eta haize korron-te itzelak daude, horre-gatik egunero pilulak hartzen ditut eta erreha-bilitazioan hasi behar izan dut lepoa eta bizkarra minduta daukadalako".

PILAR GIMENEZ

Bere amarekin, Gemarekin batera, Portaloian egoten da kupoia saltzen. Orain 9 urte hasi zen. Herri guztiak ezagutzen ditu, oso bikote alaia eta xe-lebrea da eta. Oso lanbide gogo-rra baina beste edozein bezela-koa dela esaten dute eta gaine-ra, polita: "Oso lan polita da herritar gehienak ezagutzen ditu-zu eta benetako lagunak egiten dituzu. Norekin hitzegin ez duen adineko asko etortzen da hona eta hemen egoten gara berrike-tan. Gu beti gaude alai, jendea alai egotea nahi dugulako. Dena





JUAN MANUEL ARIAS

Hamahiru urte daramatza Garibai geltokiaren inguruan kupoia saltzen, beteranoenetako bat da, eta Arrasateko jendeak betik oso ondo tratatu duela esaten du. “Bizimodu honekin pozik nago” dio berak. Egunean 300-400 kupoi saltzen ditu baina beti bezala, hile amaiera gogorragoa ei da: “Hile bukaeran krisia igartzten da eta jendeari 100eko txanpona karteratik atera-


tzea gehiago kostatzen zaio”. Sari bakarra banatu du eta hori duela 13 urte izan zen: “15 egun besterik ez neramatzan lanean eta 250.000 pta. banatu nituen. Ordurako asko zen, pentsa, kupoiak 25 pta. balio zuen!”. Urte hauetan guztietan bezero finkoak egin ditu Juan Manuelek. Itxua da bera eta betik izaten du bere arreba alboan edozer gauzatan laguntzeko.

dela, herria orain oso triste dago, jendeak ez dauka dirurik eta hori aurpegietan ikusten da.”

Arrasateko toki pribilegiatuenean lan egiten dutenez eta egunean 400 edo 500 kupoi saltzen dutela onartzen dute, 900 saltzera ere heldu dira. Baina horren truke sekulako tenperaturak jasan izan dituzte. Gemak gogoratzen duenez 50 graduko tenperatura jasan behar izan du, baita zero azpitik 7 gradukoa ere. Bikote honek 250 milioi banatu zituen 1992ko otsailaren 5ean. Bost milioi eurei egokitu zitzaien

JOSE RODOLFO FRAILE, “TXETXU”

Berak esaten duen moduan, “Arrasateko nobatoa” da, 5 hilabete baino ez daramatza kupoia saltzen eta. Goizez anbulategian egoten da eta arratsaldez San Andresko autobus geltokian. Gaur egun langabeziarekin dagoen arazoa kontuan izanda, ONCEko langileak pribilegiatuak direla uste du eta bere lanarekin oso pozik dago. “Hau izan da lanpostu bat eskaini didan enpresa bakarra. Ikusmena galtzen hasi eta lana utzi behar izan nuenean oso gaizki pasatu nuen. Gauza asko egiteari utzi behar izan nion. Nire afizioa margotzea zen eta liburuak irentsi egiten nituen. Neure burua leihotik behera bota ala aurrera egin? Erabaki bat hartu behar izan nuen eta bigarrenarekin geratu nintzen. ONCEn afiliatu eta bi urte pasa ditut bulegoan Braillea etabar ikasten. Orain gustora sentitzen naiz eta gaisotasun honen aurrean umorea erabiltzen dut babes gisa. Ezin dut depre-



sioan erortzeko luxua onartu”. Arrasatearrekin ondo konpontzen da eta sekula ez du arazorik izan. Dena dela, jendearen artean ezjakintasun handia dagoela esaten du. “Jendeak ez daki ONCEk zelan funtzionatzen duen. Kupoia besterik

ez da ikusten baina hau enpresa bat da eta irabazi asko du. Irabazi guztien %10a zerbitzu sozialetarako bideratzen da eta portzentaia hori milaka milioi dira. Enpresa zoragarria da hau baina barrutik ezagutu behar da jakiteko”.



Julian Retegi

Pilotarien maisua

Julian Retegik odolean darama pilota. 42 urte dituen arren, oraindik sasoian dago. Beharbada Euskal Herrian egon den pilotaririk onena da eta horren lekuko lortu dituen 11 txapelak. Une honetan Asegarce empresako pilotaria da eta berak esan duen bezala oraindik pilota munduan zer esan asko emateko gogoz dago.

— Final laurdenetako partidua jokatu zenuen Nagoren kontra domekan eta faborittoa izan arren, galdu egin zenuen 22 eta 14. Zer gertatu zitzaizun?

— Oso gaizki jokatu nuen, pilotari ez nion abiadurarik eman eta urduri samar ere banengoen, baina batez ere esan behar dut Nagorek asko jokatu zuela eta ni baino hobeto ibili zelako irabazi zuela.

— Aurtengo denboraldia nolakoa izan da zuretzat?

— Nahiko ondo ibili naiz. Abuztua eta iraila bitartean hiru txapelketa irabazi ditut eta sei finalera heldu naiz. Orohar denboraldia ona izan da.

— Hurrengo txapelketa eskuz binakakoa izango da. laz Errandonearekin batera irabazi egin zenuen. Aurten berarekin jokatzea gustatuko litzazuke?

— Bai, jakina. Gainera uste dut Errandonearekin jokatuko dudala. Txapelduak elkarrekin jokatzea normalena izaten da baina besteren batekin jokatu beharra izango banu, ondo irudituko litzazuke eta onena ematen ahaleginduko nintzake.



— Eskuz binakakoaren ostean, eskuz banakako txapelketa etorriko da. laz ez zenuen parte hartu, aurten zer?

— Hemendik aurrera ez dut uste Retegi buruz burukoan ikusiko duzuenik. Hala ere eguna heltzen denean izugarrizko inbidia pasatzen dut, pilotari batentzat txapelketa handia da eta.

— Pilotaria betidanik zuriz jantzi da. Orain berriz, gorri eta urdin jokatzen duzue. Nola ikusten duzu aldaketa?

— Ondo dago, batez ere publizitatea egin beharra dagoelako. Hasieran dena dela, arraroa egiten zitzaidan. Izan ere, nire asko gustatzen zait zuriz jantzea. Pilotaria gainera beti jantzi da horrela. Baina denborak eta modak aldatu egin dira eta telebistaz pilota partidua ematen dituztenez horretarako egokitu behar.

— Zer egiten duzu zure bizitzan?

— Bizitza normala dut. Iruñan bizi naiz eta asteburuetan herrira joaten naiz familiarekin. Asteazkenean zehar

berri, prestaketa berezia daramat partiduetan sasoian egoteko. Bestalde negozio batzuk banituen baina garai hauek ez dira horretarako aproposenak. Hala ere, oraindik pilotari izaten jarraitzeko asmoa dut eta ahal dudan arte frontoirik frontoi hortxe ibiliko naiz.

— Pilotari izan aurretik basogizon izan zinen, ezta?

— Bai horrela, da. Egurgile izan baino lehen, 14 urterekin harrobian egin nuen lan aitarekin, gero Leitzako paperfabrika bi urte. Beste urtebete Frantzia izan nintzen. Baina basogizon ohiaren sanbenitoarekin geratu naiz.

— Pilotaz gain, zeintzuk dira zure afizioak?

— Kirol guztiak gustatzen zaizkit eta baita boxeoa ere.

— 11 txapel lortu dituzu, zein pilotari ikusten duzu zure lortutakoa lortzeko aukeraz?

— Ez dakit, zaila da hori esatea. Une honetan Beloki da txapelduna, eta 21 urterekin aukera asko ditu nik lortutakoa lortzeko. Baina egia esateko ez dira urteak bakarrik behar, zortea eta osasuna oso ezaugarri garrantzitsuak dira.

— Gustatuko litzazuke zure semeak pilotariak izatea?

— Bai eta seme zaharrenak badu itxurarik. Gainera asko gustatzen zaio pilota eta batek daki, beharbada aitaren bidea jarraituko du.

.....

“Oraindik pilotari izaten jarraitzeko asmoa dut eta ahal dudan arte frontoirik frontoi ibiliko naiz”

Eskubaloikoek lehen garaipena lor dezakete zapatuan

Lehen mailako eskubaloi taldeak aurreko asteburuan atsedena izan eta gero, denboraldiko hirugarren ihardunaldia jokatuko du Trapaga taldearen kontra datorren zapatuan arratsaldeko 7etan Iturripen. Azken partiduan Rosa Lasagabasterren mutilek maila ona erakutsi zuten, eta joku bera egiten badute erraz lor dezakete garaipena etxean.

Arrasatearrek ondo eza gutzen dute Trapaga taldea. Iaz euren kontra jokatu zuten eta aurrendenboraldian ere elkarren kontra neurtu zituzten indarrak. Trapagak gaur arte neurketa bakarra irabazi du eta bi galdu. Taldean jokalaririk errusiar bat dago baina orain arte ez du mailarik erakutsi. Rosa entrenatzaileak jokalaririk guztiak izango ditu gertu zaturako. Partidua lehiatsua izango den arren, Arrasateko taldeak garaipena lortzeko aukera handiak ditu. Lehen territorialekoek Pasañarra taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak domekan eguerdiko 12etan Aretxabaletako kiroldegian.

Urbina Maltzagak ezin Iruñan irabazi

Urbina Maltzaga eta Señorío de Zuasti izan ziren lehen asteazkenean Iruñan eta Arrasateko taldeak galdu egin zuten 82 eta 75. Urbina Maltzagakoak defentsa lanetan



Arrasatek eta Trapagak denboraldiko 3. ihardunaldia jokatuko dute.

makal ibili ziren eta baita barruko jokuan ere. Señorío de Zuasti taldean Urdaian jokalaririk erabakiorra izan zen, batez ere sazkira begira, 27 puntu lortu zituen. Datorren zapatuan Ponferrada taldea izango dute arerio arrasatearrek. Leonen jokatuko da norgehiagoka arratsaldeko 6.15etan. Ponferradak Arrasateko taldeak bezala hiru partidu irabazi ditu eta bost galdu. Urbina Maltzagak aurtengo helburuak lortzeko derrigorrez irabazi behar du neurketa. Sailkapeneko buruan egoteko taldea osatu dute goi mailako jokalaririk ekarritik, baina orain arte irregulartasuna izan da nagusi Samaniegoren taldean. Bestalde, azken orduko berrien arabera ACB ligako Huesca

taldeak Iñaki Gomez jokalaria nahi ei du. Talde horretan Jaki Espinosak jokatzen zuen baina hainbat arazo izan eta gero, taldetik kanpo utzi dute. Jakiren hutsunea betetzeko Iñaki Gomez fitxatzea nahi dute. Dena dela, Iñaki Gomez Urbina Maltzagako jokalaria da eta Basconiak ezin du beste talde batera traspasatu. Bestela kolokan jarriko litzateke talde bien arteko elkarlanerako akordioa. Beraz, Iñaki Gomezena hutsean gera daitekeen beste ahalegin bat izan daiteke, antzerako arazoa denboraldi hasieran Ourense taldearekin izan zuen eta.

Zamudio bisitari Atxabalpen

Mondra taldeak berdinke-

ta lortu zuen Basconia taldearen kontra. Partidua ez zen ona izan eta lehen minututik jarri zitzaion aldatz gora Arrasateko taldeari. Hala ere, bigarren zatiko 42. minutuan Oxel Apraizek buruz berdinketa lortu zuen. Domekan Mondra eta Zamudioaren arteko partidua egongo da ikusgai Atxabalpen 3.45etan. Zamudioak 19 puntu ditu eta sailkapeneko 4. tokian dago, bost neurketa irabazita, lau berdinduta eta bi galduta. Talde sendoa ematen du eta Mondrak gogoz eta gogor egin beharko du lan irabazteko. Emakumeek derbia jokatuko dute Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. UDA eta Mondraren arteko partidua jokatuko da domekan goizeko 11.30etan.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

“EDERTU” ileapaindegia eta solarium-a



San Andres auzoa • Tfnoa: 79 04 28 ARRASATE

S. CARPASCAL

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak

Fabrikan erakusketa

GIPUZKOA ETORBIDEA,
6 -1A

Ez pasatu orrialdea!

Iragarki hau irakurtzeak lan asko kenduko dizu.

Zure etxebizitza jantzi nahi baduzu, erreformak egin edo gelaren bat apaindu...

Behar duzun guztia **ANEREA**n aurkituko duzu: Sukalde eta bainu altzariak, keramika, logela, egongela eta sarrerarako altzariak, su-bajuak, elektragailuak, lanparak, apaingarriak...

Bai guzti, guztia zure zerbitzura:

- Salmenta
- 1.000 m.tik gorako erakusketa
- Diseinua
- Dekorazioa
- Erreformak
- Apaingarriak
- Muntaia, gremio guztiak

Eta dena toki berdinean!!



Laister zabaltzekotan!

GALERIA DEL HOGAR

Markulete Industrialdea 21, 22 pabilioiak
ARRASATE

Gozategi musika taldea

Gozategitarak Arrasaten

“Nor nori nork, baldintza ta subjuntibo, joder...” Nork ez du estrofa hori azkenaldean kantatu? Ainhoa Gozategi, Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxeak, Gozategi taldeko partaideek egin dute famatu azkenaldian. Gaur gauean entzuteko aukera izango da Arrasaten eskainiko duten jaialdian. Ondoren Argentinara joango dira.

— Zein instrumentu erabiltzen dituzue zuen kantuetarako?

— Soinua, panderoa, kitarrak, baxua, bateria..., instrumentu tradizionalak eta modernoak nahasten ditugu. Bestalde, hemengoak ez direnak ere erabiltzen ditugu, Hego Amerikako txarangoa adibidez.

— Erromeriatan jotzen hasi eta orain irrati guztietan entzuten zaizue “Nor nori nork” abestiarekin. Nola izan da hori?

— Egia esan denbora gutxi pasatu da erromeriatan jotzen hasi ginenetik. Ondoren, gure kantu propioak sortzen hasi ginen eta jendeak gustora entzuten zituela konturatu ginen. Maketa bat grabatzea erabaki genuen eta joan den urtean kaleratu genuen. Aurten berriz, diskoa ateratzeko aukera suertatu zitzaigun eta aprobeixatu egin genuen. Apirilean atera genuen eta ikusten dugunez arrakastatsu dabil oraindik ere.

— Egiten duzuen musikak estiloren bati erantzuten al dio?

— Ez dakit... erabiltzen ditugun instrumentuak direla eta, folk musika



egiten dugula esan daiteke, euskal-folka egiten dugu.

— Talderen baten influentziarik jaso duzue?

— Musika egiten denean influentzia asko izaten dira eta gainera gaur egun, era guztietako musika estiloak entzuten ditugu. Asierri adibidez trikitixa mundua betidanik gustatu izan zaio eta nik esaterako, oso musika desberdina entzun izan dut beti. Hego Amerikako musika adibidez, asko gustatzen zait, horregatik gure kantuetan txarangoa jotzen dugu. Beraz, influentzia desberdina ditugunez musika estilo

berezi bat sortu dugula uste dut. Gure musikak nortasun propioa duela esango nuke.

— Ospetsu egin zaretela esan daiteke. Horrek asko pisatzen du?

— Egia esan ez gara arrakasta horretaz oraindik jabetu, uda osoa lanean ibili gara eta. Ez dakit oso ospetsu egin garen esan dezakedanik...

— Beste diskoren bat ateratzeko asmotan zabilzate?

— Ba bai, datorren urteko apirilera beste disko bat atera nahi dugu eta proiektua nahiko

aurreratuta daukagu gainera.

— Zeri kantatzen diozue?

— Gazteak gara eta gazte guztiengan eragina duten gai ez hitzegiten dugu gure abestietan. Euskal Herriak egoera berezi bat bizi du eta arazo horiek ere gure kantuen gaiak dira askotan. Kontu pertsonalak ere jorratzen ditugu eta baita maitasun kontuak ere.

— Gaur jaialdia emango duzue Arrasaten. Ze jaialdi mota izango da?

— Jaialdi hau Gozategi taldearen proiektu bat da. Talde bezala guk joko dugu baina euskal dantzariak partehartze handia izango dute. Dantzariak euskal dantza talde desberdinetakoak dira baina punta puntakoak. Gipuzkoako dantza txapelketako irabazleak dantzatu du, Edu Muruamendiaraz bergararrak eta berarekin batera Altsasuko dantza taldeak, Beasaingoak eta Donostiakoak. Jaialdia bi zatitan banatuko da: alde batetik guk gure kantuak joko ditugu eta bestalde dantzatutako kantak egongo dira “Plazara” eta “Hator hator” kantu ezagunekin adibidez.

— Jaialdi hau Arrasaten bakarrik eskainiko duzue?

— Bai eta gero Argentinara goaz muntaia osoarekin. Hango Euskal Etxetik deitu ziguten urtero egiten duten jaialdian parte hartzeko eta horretara goaz Gozategi taldea eta dantzariak; guztira 22 lagun goaz.

.....

“Argentinako Euskal Etxetik deitu digute urtero egiten duten jaialdian parte hartzeko eta orain hara goaz dantzariekin batera”



tzerrira bidaiatzea gauza arrunta da gaur egun, baina garai batean kostata egiten zen horrelakorik. Aitzakia on bat

eta diru dexente behar zen horretarako, soberan ez zeuden gauzak jakina. Horregatik asko pentsatu barik eman zuten baiezkoa 1958ko abuztuan Europan zehar ibili ziren 105 lagunek.

Bruselako Expo-a burutu zen aipatu urtean. Eskola Politeknikoak, On Jose M^a Arizmendiarieta gidari zuela, aitzaki horretaz baliatuz bidaia antolatu zuen. Merkerke antolatutako bidaia izan zen, eta ibili ere horrela ibili ziren, eskas samar baina

gustora. Bidaiatzea bera ez zen gutxi.

Andramari egunean hiru autobus irten ziren Arrasate-tik, hamalau egun berandua-go itzultzeko. Helburua, Brusela zen, baina Europako beste zenbait toki ere ikusi zituzten, Frantzia, Holanda, Alemania.... Kanpinetan ibili ziren gehienbat, Bruselan bertan, 10 kilometrora, barrakoiak hartu bazituzten ere.

Argazkia Alemanian ateratakoa da, Coloniako katedralaren aurrean. Txistula-

riak eta dantzariak ageri dira bertan egindako saio batean, eta ikusleen arteko gehienak kazetariak ziren, aurrez abisua jasota zeuden eta. Dantzari eta txistulariez gain, bidaia hartan soinu-joleak eta kantariak ere joan ziren. Guztien lagun, edo gertatzen zena- ren berri emateko, Jose Mari Lasagabaster argazkilaria eraman zuten. Argazkia berak ateratakoa da. Ondorengo asteetan izango duzue bidaia honetako argazki gehiago, pilatxo atera zituzten eta.

**ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.**



- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

Z E R N A H I A G O ?

Edurne Landaluze**“Arrabala” jantzi-dendakoa**

- Gustatzen zaizu zure lana? Bai.
- Erosten duzu ONCEko txartelik? Batzutan bai.
- Jaso duzu inoiz saririk? Garrantzitsurik ez, baina botatakoa bai.
- Sinestuna zara? Ez dakit, baina zeozertan sinesten dut.
- Zer saltzen da gehien? Arropak eta motxilak.
- Zer dago modan orain? Koadrodun prakak.
- Nondik ekartzen duzue arropa? Hego Amerikatik, Nepaletik eta Estatutik.
- Zer ez zenuke sekula jantziko? Takoidun zapatak.
- Zein pelikulako protagonista izatea gustatuko litzaizuke? “Dirty Dancing” pelikulakoa.
- Zine zuzendari bat? Almodovar.
- Noiztik daukazu melenatxoa? Udatik.
- Zenbat ordu egiten duzu lo? Bederatzi.
- Dendako gauzarik garestiena? Lanazko txamarrak, 12.000 pta. balio dute.
- Ze adineko bezeroak etortzen dira dendara? 15etik 30era urtekoak.
- Papera eta beira edukiontzietara botatzen dituzu? Bai.
- Praka marka bat? Levi's.
- Lora bat? Narcisoa.
- Zure izena aldatzekotan zein izen aukeratuko zenuke? Maria.
- Telebistako aurkezle gorrotatuena? Ez dut telebista asko ikusten eta ez dakit zer esan.
- Dutxa ala bainua? Bainua.
- Azokara joaten zara? Ez.
- Ezkondu ala elkarrekin bizi? Elkarrekin bizi.

**ABESBATZAK****Eusko Korus irabazle Tolosan**

Arrasateko Goikobalu abesbatza, Donostiako Orfeoia eta San Ignacio abesbatzako 40 gizona zko osatutako Eusko Korus abesbatzak polifonia eta folklore saileko lehen sariak irabazi ditu Tolosako 27. Abesbatza Lehiaketan. Abesbatza bereziki lehiaketa honetarako sortutakoa da, betiko euskal kanten garrantzia azpimarratzeko.

Tolosako lehiaketan hamalau herrialdetako abesbatzek hartu dute parte eta Eusko Korus izan da euskaldun bakarra. Euskaldunek Moco-roaren “Sorgin Dantza”, Luis de Victoriaren “Tenebrae Factas Sunt” eta Bustok lehiaketarako bereziki sortutako “Tu Venías” kantekin lortu zituzten bi sariak. Sarien berri ematerakoan, txaloen ondoan txistu batzuk ere entzun ziren.

**Parques
y Jardines**

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)


Denborapasak

• ESAERA •

“Jakineko etsaiak ez dira arriskutsuenak izaten”

DUCHESNE

• JEROGLIFIKOA •



Elurra... ari du.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10				11			
12			13			14	
15				16	17		
	18						19
20					21		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Monakoko printzea. 9. Argia sortzen duen indarra. 10. Nasa. 11. Pentamendua hitzez adierazi. 12. Zerbait zeharo ukatzeko hitza. 14. Errepikatuz lelo. 15. Lotan ematen den denbora. 18. Trebetasuna hartu. 20. Aintzat hartua izatea merezi duena. 21. Ohorezko hitzimatea.

Bertikalak 1. Murgiondo, Goikobaluko presidentea. 2. Arduratu, lanpetu. 3. Igitatzen duen langilea. 4. Neu. 5. (Ald.) Niri. 6. Europako Diru Sistema. 7. Julius, politikari austriarra. 8. Bizkarrezurdun. 13. Bizkaiko mendia, Sopuerta. 16. DEBAko kontsonanteak. 17. Azkenengo joan den urtean. 19. Titanio.

• HOROSKOPOA •

Aries Aste honetan mendira joan eta ikusiko duzu mundua ez dela hain iluna.

Taurus Haragirik ez duzu jaten baina pertsonena askotxo gustatzen zaizu.

Gemini Bizkor haserretzen zara. Pazientzia apur bat falta zaizu.

Cancer Errealitateaz paso egiten baduzu nahigabeekin jarraituko duzu.

Leo Txoriburu galanta! Horixe zara zu.

Virgo Oporretan egin zenituen lagunak erabat ahaztu dituzu.

Libra Poltsikoak ondo zulatua dituzu azkenaldian. Zenbat gastatu duzu?

Scorpio Etenik gabe lanean. Hori ez da osasunarendako ona.

Sagitarium Amodio kontuetan argia baina gaztea zinenean. Orain...


Capricorn Zelako itxura duzun! Kirurgia egin duzu?

Aquarius Txapela buruan, askoz ere sexy-agoa zaude.


Piscis “Bilbainadak” kontatzea gustatzen zaizu. Zein xelebrea zaren!

Etxe-Aundi

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!



Anna de Codorniu

• TELEBISTAREN TXOKOA •




Azokako produktuen berri

Hemendik aurrera eta asteazkenero, azokari zuzendutako tarte berezi bat izango da ikusgai

informatiboetan. Tarte horren helburua astero azokan agertzen diren sasoiko produktu berrien eta horien prezioen berri

ematea izango da. Barazkiak, arraina, haragia... produktu guztien prezio gorabeherak asteazkenetako informatiboetan.

• KOMIKIA •



Gorka. Ixe-ixa komiki taldea.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etseko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etseko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

• PROGRAMAZIOA •



3 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Elkarrizketatua:

Nekane San Miguel

epailea. Juratuaren

legearen gainean

hitzegingo du.

4 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

5 Asteartea

19.30etan

Marrazki bizidunak

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

6 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Nor Nori Rock

7 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Dokumentala

8 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

• SOLUZIOAK •

Jeroglifikoak:

19. TI.
8. Ornodun. 13. Alen. 16. Db. 17. Laz.
Igitari. 4. Ni. 5. Inc. 6. EDS. 7. Raab.
Bertikalak: 1. Rakel. 2. Arzotzu. 3.
21. Zin.
Bo. 15. Loaldi. 18. Trebatu. 20. Dujin.
dar. 10. Kai. 11. Esm. 12. Ezta. 14.
Horizontalak: 1. Rainiero. 9. Argin-

Etxebizitzak

- **Erdialdean dagoen garagea alokatzen da,** itxikitakoa. Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisu bat alokatzen dut** Udalpe kalean (Erguin). Tfnoa: 79 22 75.
- **Aukera paregabea.** Roneon garageak salgai, prezio onean. 79 21 61.
- **2 garage plaza alokatzen dira Maixorren.** Zerkaostetatik dauka sarrera. Tfnoa: 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Garage bat alokatzen da** Altamiran. Tfnoa. 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Erdialdean 90 m²ko pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua alokagai Maalako Arrabalean.** Jantzi-ta dago. Tfnoa: 77 02 59.
- **Pisua alokagai San Juanen.** Ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Dei egin gauez.
- **Gasteizen bi logela alokatzen ditut.** Tfnoa: (945) 27 86 79.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxabea alokatzen da Udalpe kalean (Erguin).** Tfnoa: 79 22 75.
- **Pisua salgai Erguin kalean.** Tfnoa: 77 02 01. Loii.
- **Garajea salgi Aldaigainen.** Tfnoa: 79 77 81.
- **Roneon lehen solairuan garaje itxia** alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 18 95.
- **Eskoriatzako sarreran jantzitako pisua** alokatzen da. Tfnoa: 79 87 26.
- **Lagun bat behar da** Bilboko Alde Zaharrean pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.

Lana

- **Magisteritza daukan neska batek OHOk** klaseak ematen ditu, euskaraz edo erdaraz. 77 10 21, Montse.
- **Neska prest umeak zaintzeko** edo dendan lan egiteko. Dei egin 13.00tik 16.00era edo 22.00tik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakfel.
- **Neska euskalduna umeak zaintzeko** edo loka-lak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 30 85. Eguedietan deitu.
- **Erizain laguntzailea** eta gerontologian esperientziaduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 30 85. Eguedietan deitu.
- **Aleman klaseak jasoko** nitzuzke, bakarrik edo taldeka. 10etatik aurrera. Tfnoa: 78 08 98.
- **Magisteritza titulodunak OHOk** klaseak emateko prest. Tfnoa: 79 98 73. Rakel.
- **Umeak zaindu** edota etxeko garbitasunak egin-nitzuzke. Tfnoa: 79 96 10. Eguedietan.
- **UBIra arteko edozein gaien klaseak** emango nitzuzke, euskaraz nahiz erdaraz, astelehenetik larunbatera arratsaldean. Tfnoa: 79 46 75. Gauez deitu.
- **Masaia terapeutikoa eta akupuntura.** Tfnoa: 79 18 02. Blanca Iñiguez.
- **Emakumea etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 31 58.
- **Esperientziadun kamioi txoferra lan egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 31. Alfonso.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.

Salerosketak

- **Rondaia talde baterako soinu-jolea behar da.** Tfnoa: 79 71 21.
- **Boxer arrazako txakurkumea salgai.** 77 00 17.
- **Optima SP 20 idazteko makina elektrikoa salgai.** Egoera ona. Tipex-a darama. Tfnoa: 79 11 54
- **Suzuki Santana salgai.** Oso egoera onean dago, kilometro gutxiarekin. Tfnoa: 79 86 06.
- **Razesa txirriindua salgai.** 52 neurrikoa. Egoera eta prezio ona. Tfnoa: 79 03 80.
- **Hispaniel Breton arrazako** bi txakur eme salzen dira, 7 hilebetekoak. Txerto txartela dute. Tfnoa: 79 86 06.
- **Kerosenezko berogailu elektronikoa salgai.** Tenperatura programatzeko du eta berri-berria dago. Tfnoa: 79 13 73.

Denetarik

- **Urriaren 19an txakurra desagertu zitzaidan.** Artzain belgiar beltz bat da eta hiru hilabete ditu. Tfnoa: 79 60 10.
- **Uribe auzotik Eguzki dorrera bitartean** domina eta nortasun txapa galdu ditut. Dominak Ane izena darama eta nortasun txapak Rh-a. Tfnoak: 79 66 09 eta 79 40 64.
- **Zilarrezko lepoko zintzilarioa galdu zait** Erdiko Kaletik Erguingo bidean, aurrean Nuria jartzen du eta atzean Jose. Tfnoa: 79 63 30.
- **Igandean txandalen goialdea galdu zitzaidan** Eskoriatzako Eraña auzoan. Hartu duenak dei deza-la 79 39 69 tfnora.
- **Garibaiko kolunpiotan umearen motxila galdu nuen** joan den ostegunean. Barruan karpeta eta jertsea zeuden. Tfnoa: 77 06 51.

Aste Gazte

Bekak

- Kanpo-Arazoetarako Ministraritzak, datorren udara eta ikas-turteari begira 96/97 hainbat beka kaleratu du. A) Ikasketa-jarrai-penak Erresuma Batuan, Herbeereetan, Norvegian, Hungarian, Belgikan, Finlandian, Austriar eta Danimarkan. B) Uda-ikastaroak, hizkuntza eta kulturari buruzkoak herrialde ezberdinetan. Epea: abenduan eta urtarrilan zehar.

Lana

- Iruñako Udalak, laborategiko laguntzaile teknikoak lanpostua

kaleratu du. LH2 kimika adarretako edo laborategiko laguntzaile teknikoaren diploma, titulazioa izatea eskatzen da. Epea: arazoak 8.

- Bilboko Udalak, arkitekto lanpostu bat betetzeko deia egin du. Epea: azaroak 6.
- Gernika-Lumoko udalak, hiru lanpostu kaleratu ditu. A) Goi mailako teknikaria. Ekonomia, Enpresa zientzietan edo Zuzenbideko lizentziaturak dutenei zuzenduta. B) Peoia. Eskola Graduatu izatea eskatzen da. C) Igeltseroa. Eskola agiria izatea.

Ikastaroa

- Gazteei zuzenduta, "Txotxongilo tailerra" Bergarako Taun-Taun kolektiboaren eskutik. Abenduaren 26an hasita 30era arte, guztira 10 ordu. Ikastaroa, IMIko lokaletan izango da, arratsaldeko 5etatik 7etara. Prezioa: 5.000 pta. (klaseak eta materiala barne), 3.500 pta ikasle eta langabetuentzat. Plaza mugatuak.

Lehiaketak


- "Donostia Hiria Literatur Sariak". Deitzen diren espezialitateak: ipuina eta antzerkia euskaraz, ipuina eta antzerkia gaztelaniaz. Epea: azaroak 17.

"Bada ene ari-man, sasi eta sastraka artean, gaztetan iturri bat. Bere ura mingotsa dela esango duzue. Egia, baina ura dario, xurrunruak eta aparra dauka"

Pio BAROJA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B	☎77 12 63

ENTZUMENA, SUDURRA, EZTARRIA

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan), Zerkaosteta, 17 behea	☎79 20 18
--	-----------

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarté 43 Bis	☎77 03 96
--	-----------

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea	☎79 20 18
--	-----------

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

MASAJARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk	☎77 06 22
--	-----------

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea	☎79 44 22
--	-----------

MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA.....	☎79 55 25
--	-----------

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1	☎79 29 95

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6	☎79 50 75
---	-----------

PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10	☎79 48 77

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------



5 urteko garantiaz

Eta LongLife modelo baten erosketagatik larrua garbitzeko eta mantentzeko produktu aukera osoa jasoko duzu!



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**